



Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

ARABAKO TEKNOLOGIA-PARKEA
2023KO MARTXOAREN 21EAN



Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

BERTARATUAK

Iñigo Urkullu jauna. LEHENDAKARIA

Pedro Azpiazu jauna. EKONOMIA ETA OGASUNEN SAILBURUA

Arantxa Tapia andrea. EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMENEN SAILBURUA

Jokin Bildarratz jauna. HEZKUNTZAKO SAILBURUA

Gotzone Sagardui andrea. OSASUNEN SAILBURUA

Iñaki Arriola jauna. LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIOETAKO SAILBURUA

Bingen Zupiria jauna. KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKAKO SAILBURUA

Ramiro Gonzalez jauna. ARABAKO DIPUTATU NAGUSIA

Unai Rementeria jauna. BIZKAIKO AHALDUN NAGUSIA

Markel Olano jauna. GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIA

Eva Ferreira andrea. EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREA

Jose Maria Gibert jauna. DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREA

Bixente Atxa jauna. MONDRAGON UNIBERTSITATEKO ERREKTOREA

Rikardo Bueno jauna. BRTA-ko ZUZENDARIA

Leire Barañano andrea. NEIKER-eko ZUZENDARI NAGUSIA

Ricardo Diez Muiño jauna. DIPC-ko ZUZENDARIA

Fernando Cossío jauna. IKERBASQUE-ko ZUZENDARI ZIENTIFIKOA

Manuel Salaverria jauna. INNOBASQUE-ko PRESIDENTEA

Alexander Artetxe jauna. ARTECHE TALDEAREN PRESIDENTE ETA ZUZENDARI DELEGATUA

Pello Rodriguez jauna. DANOBATGroup-eko ZUZENDARI OROKORRA

Mikel Barandiaran jauna. GLOBAL DOMINION ACCESS-eko KONTSEILARI DELEGATUA

Francisco Quintanilla jauna. FAES FARMA-ko ZUZENDARI OROKORRA

Cristina Uriarte Toledo andrea. ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZARAKO KOMISIONATUA

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

0. Ongietorria eta hasierako agurra.

Lehendakariak bertaratutakoak agurtu ditu, eta ongi etorria eman die Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluak legegintzaldi honetan egin duen seigarren bilerara.

Jarraian, bileraren edukiari buruzko sarrera orokorra egin du:

“Komisionatua, kontseilukideok, arratsalde on!

Ezer baino lehen, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Kontseilu honetan zuen parte hartzea eskertzen dizuet. Legealdi honetan egiten dugun seigarrena da eta orain arte egindakoen gainean egiten dugun balorazioa oso positiboa da.

Gure helburua argia da: berrikuntzaren alorrean Euskadi Europako abangoardian kokatzea. Izan ere, gure erreferentzia Europa da eta gure herria lehen postuetan kokatua izatea nahi dugu.

Horretarako, aurrera egiteko, ezinbestekoa da Zientzia, Teknologia eta berrikuntzaren aldeko apustu sendo eta garbia egiten jarraitzea.

Beharrezkoa da gure baliabideak honetara bideratzea eta asmatzen saiatzea. Helburuak merezi du.

Beti dago zer hobetu eta horretarako ere elkartu gara gaur, hain zuzen ere.

Gaur, 2030 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana ezartzeko egindako jardueren balantzea aurkeztuko dugu.

Herrialde-estrategia horrek dimentsio globaleko hiru trantsizio handietan batzen gaitu eta bideratzen gaitu:

- Energetiko-Klimatikoan
- Teknologiko-Digitalean eta,
- Demografiko eta Sozio-Sanitarioan

Aurrera goaz. Euskadik aurrerapen esanguratsuak egin ditu I+G+b-ko inbertsioen arloan, baita horien inpaktu eta emaitzetan ere.

Berrikuntza handiko eskualde eta herrialdeen artean jarraitzen dugu; I+Gko inbertsioan, enpresa-berrikuntzan eta Europako funtseñ itzuleran lehen autonomia-erkidegoa gara.

Gure posizio lehiakorra eta berritzailea hobetzeko lanean jarraitzen dugu, Europako eskualde liderretara hurbiltzeko. Zerumuga honekin lanean jarraituko dugu.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

Horrela, 2023an % 12 handitu ditugu I+G+b-ri laguntzeko partidak, eta gure planaren 3 zutabeak bultzatzen jarraitzen dugu, talentua elementu nagusi gisa hartuta:

- *“Bikaintasun Zientifikoa”*
- *“Lidergo Teknologiko-Industrialak”, eta*
- *“Berrikuntza irekia”.*

Lehenengo zutabearen, IKUR 2030 estrategia dugu, Euskadi nazioarteko polo zientifiko gisa kokatzea eta eragin ekonomiko eta soziala duten emaitzak lortzea bilatzen duena.

Ikerbasquek lagundutako estrategia bat, Euskadin zientzia bultzatzeko funtsezko aktiboa diren ikertzaileak erakartzeko eta atxikitzeko.

Bigarren zutabearen, lidergo teknologiko-industrialean, lankidetzak publiko-privatuen oinarritzen gara, dimentsio kritiko handiagoa lortzeko eta gure inbertsioen emaitzak biderkatzeko. Lankidetzak horren erakusgarri dira RIS 3 eremuetako pilotaje-taldeak.

Bide honetan, sareak eta harremanak indartzen ari gara.

Pasaden urtean euskal partaidetza duten 333 proiektu europar berri onartu ziren. Horiek 230 milioi euroko itzulera ekarriko dute Euskadira.

Aurreko urtearekin alderatuta, 3tan biderkatu da proiektu kopurua eta 4 batean lortutako finantzaketa. Oso datu positiboak, zalantzarik gabe.

Gure industriaren lehiakortasuna hobetzen jarraitzen dugu, hainbat laguntza-programaren bidez.

2022an 107 milioi euroko laguntza onartu genuen industria-ikerketako, garapen esperimentaleko eta ekipamendu zientifiko-teknologikoko 120 proiektutarako. Proiektu horietan Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko enpresek eta eragileek parte hartzen dute.

Hirugarren zutabea berrikuntza irekia da, eta enpresen berrikuntza-proiektuak bultzatzen jarraitzen dugu, bereziki txikiak.

INNOBIDEAK Foru Aldundiek parte hartzen duten erakundeen arteko lankidetzaren adibide bat da. Beste adibide bat HAZINNOVA da, non berrikuntzari laguntzeko 100 eragile baino gehiagok parte hartzen duten, Innobasquek koordinatuta.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

Gure lan eredu definituta dago: "auzolana". Lankidetzaren bidez bakarrik lortuko dugu Europako liderren pare jartzea.

Kontseilu honen aurreko bileretan Jaurlaritzaren eta Foru-Aldundien programak eta ekimenak ezagutzeko aukera izan dugu.

Gaur, enpresen ahotsa entzuteko aukera dugu eta Ikerketan, Garapenean eta Berrikuntzan dituzuen estrategia eta proiektu esanguratsuenak lehen eskutik ezagutuko ditugu.

Zuei hitza eman aurretik, Cristina Uriarte komisionatuak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren 2022ko aurrerapen nagusien laburpena egingo digu".

Lehendakariak, amaitzeko, hitza eman dio Cristina Uriarteri, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Komisionatuari, bileraren gainerako puntuak gida ditzan.

1. Aurreko akta irakurtzea eta onestea.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluak 2022ko azaroaren 8an egindako azken bileraren akta onartu du.

2. Bileraren nondik norakoak aurkeztea.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako komisionatuak sarrera orokorra egin dio bileraren edukiari, eta aurretik bidalitako gai-zerrendan sartu ziren aztertu beharreko puntuak gogorarazi ditu.

3. 2030 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Planaren aurrerapenak. Cristina Uriarte.

Komisionatuak, hasteko, Euskadi 2030 ZTBPre lehen jarraipen-txostenaren laburpena aurkeztu du, Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentziaren laguntzarekin egina.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

2030 ZTBP-ren Jarraipen Txostena

Txostenak 2021eko ekitaldi osoa kontuan hartzen du, Plana ezarri zen lehen urtea, eta horri buruzko estatistika-informazio osoa eta policy mix-aren bilakaerari buruzko informazio guztia dago. Gobernantzaren eta gidaritzta-taldeen hedapenak 2021eko eta 2022ko ekitaldiak hartzen ditu barne, eta Eusko Jaurlaritzak aurrekontuko baliabide ekonomikoen mobilizazioak, berriz, 2021, 2022 eta 2023ko hiru ekitaldiak hartzen ditu.

Txostenak, besteak beste, honako informazio hau jasotzen du:

- Policy mixak 85 laguntza-programa izan zituen, eta 394 milioi euro mobilizatu zituzten 2021ean: 119 milioi euro “Bikaintasun Zientifikoan”, 180 milioi euro “Industria-lidergo teknologikoan”, 59 milioi euro “Berrikuntza irekian” eta 37 milioi euro “Talentuan”.
- RIS3 arloetako I+G inbertsioak urte horretan egindako inbertsio osoaren % 74 izan ziren 2021ean, eta % 11,1 hazi ziren 2019ko datuekin konparatuta. Inbertsio osoaren bi heren Industria Adimendunaren, Energia Garbiagoen eta Osasun Pertsonalizatuaren lehentasun estrategikoetara bideratu ziren.
- Pilotaje-taldeak berrantolatu dira, ekimen zein proiektu estrategikoak eta nazioarteko posizionamenduan egindako aurrerapenak nabarmenduz. Azpimarratu behar da, halaber, Zeharkako Trakzio Ekimenak abiarazi direla Zahartze Osasuntsuaren, Mugikortasun Elektrikoaren eta Ekonomia Zirkularraren arloan.
- I+Gko inbertsioak finantzatzeko baliatutako baliabide ekonomikoak 1.647 milioi eurora iritsi dira 2021ean Euskadin, serie historikoaren maximoa, eta 2030erako ZTBPren aurreikuspenak baino ia % 10 handiagoa.

2021eko 2030erako ZTBP-ren Aginte Koadroko adierazleen hobekuntzan, honako aurrerapen hauek nabarmendu ziren:

- I+G+b emaitzetara bideratzean, ezagutzako enplegu intentsiboa % 20,1era arte hazi zen (5 enplegutik 1 ezagutzan intentsiboa izan zen), eta argitalpen zientifiko aipatuenak % 17,94raino igo ziren.
- I+G+b-ko jarduera bultzatzean, I+Gko inbertsioa % 10,5 hazi zen aurreko urtearen aldean, enpresen finantzaketak bultzatuta, 1.647 milioi eurora iritsi arte; aldi berean, enpresa berritzaileak % 40,48raino hazi ziren. Babes intelektualean 223 patente europar, 441 marka komertzial eta 88 diseinu komunitario eskatu ziren.
- Euskal I+G+b nazioartekotzearen sustapenean, lankidetzan egindako argitalpen zientifikoak 1.953 izan ziren. Nazioarteko finantzaketa ere 131 milioi eurora arte hazi zen, nahiz eta Horizonte 2020 esparru-programaren azken urtea izan.
- Talentu zientifiko-teknologikoaren sustapenean, % 29,68ra arte hazi ziren graduko STEM titulazioetarako sarbide berriak, eta ikertzaile doktoreen ehunekoa, berriz, %

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

30,55era arte igo zen. Bestalde, ikertzaileen artean emakumeen ehunekoa pixka bat jaitsi zen, % 36,25eraino.

Txostenak ondorioztatzen du helburu operatiboen betetze-mailak bilakaera positiboa izan duela 2021ean: 18 adierazleetatik 11k hobera egin dute, eta 6k 2023rako ezarritako helburua ere gainditu dute.

Aurrerapenak Zeharkako Trakzio Ekimenetan (ZTE)

Komisionatuak jakinarazi du joan den azaroaren 24an aurkeztu zirela Mugikortasun Elektrikoaren eta Ekonomia Zirkularraren ZTE-ak, 80 zientzia-, teknologia-, enpresa- eta administrazio-erakunderi baino gehiagori zuzendutako jardunaldi batean, Deustuko Unibertsitateko CRAI Liburutegian, Bilbon.

Jardunaldi honek jarraipen bat izan zuen otsailaren 2an eta 3an Vitoria-Gasteizko Europa Jauregian eta Zamudioko Bizkaiko Parke Zientifiko-teknologikoan egindako bi lan-saiotan. Saio horietan, 100 erakundek baino gehiagok lan egin zuten aurreko bi ekimenetan zeharkako trakzio proiektu kolaboratiboak identifikatu eta bultzatzeko.

Azkenik, jakinarazi da joan den otsailaren 2an argitaratu zela EHAAn Lehendakaritzaren laguntza-programaren lehen deialdia, Zeharkako Trakzio Proiektu Kolaboratiboak diseinatzeko, “Zahartze Osasuntsuaren”, “Mugikortasun Elektrikoaren” eta “Ekonomia Zirkularraren” arloetan. Eskabideak aurkezteko epea 2023ko apirilaren 21ean amaituko da, eta erabilgarri dagoen aurrekontua 1,2 milioi eurokoa da.

Pilotaje taldeen eta ZTBP-ren beste arloetako aurrerapenak

Cristina Uriartek ZTBPko pilotaje-taldeen eta beste arlo batzuen mugarri eta aurrerapen nagusietako batzuk aipatu ditu:

Pilotaje taldeen aurrerapenak

Globalak:

- Behar eta aukera berrietara egokitzeko berkonfigurazio dinamikoa.
- Ekimen eta proiektu estrategikoak bultzatzea: 106,8 M € enpresen I+G+bko 120 proiekturi, ZTBESko eragileei eta ekipamendu zientifiko-teknologikoari.
- Nazioarteko posizionamenduan egindako aurrerapenak: Horizonte Europaren 333 I+G+b proiektu europar berri, 230 milioi euroko finantzaketarekin Euskadirentzat.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

Industria Adimenduna:

- Gaikako 4 lantaldean berrantolatzea: aeronautika, automozioa, osasuna, makina-erreminta.
- Bultzatutako proiektu estrategikoak: Basque CCAM Lab, BDIH, BasqueVolt.
- Basque Open Industry erakundea Bilbon, 2023ko azaroaren 13an eta 17an.

Energia Garbiagoak:

- Proiektu estrategikoak: Basque Net Zero Industrial Superklusterra, Hidrogenoaren Euskal KorridoreaH2, Demosath (Saitec offshore + Geroa), Hy2Tech IPCEI (Sener), Global Smart Grids Innovation Hub (etengabeko sare publikoen proiektua), Turbowave (CPI), etab.

Osasun Pertsonalizatua:

- 3 lantalde berri sortzea: 1 terapia aurreratuetan (estrategia), 2 osasunari aplikatutako teknologietan: teknologia disruptiboak eta bioinprimaketa.
- Proiektu estrategikoak: Health Data Access Body (HDAB) Ikerkuntza eta Osasunberri.

Elikadura Osasungarria:

- Ontzi eta bilgarri iraunkorren multzo berria, segurua. I+G+b laguntzeko tresnak indartzea.
- Proiektu estrategikoak: Behatoki elikadura eta egurraren behatokia, Ekonomia urdinaren bultzada Oarsaldean, Food4Future.

Ekoberrikuntza:

- Emaizak ebaluatzea eta laguntza-programak egokitzea.
- Ekonomia zirkularreko proiektu erronkariak aktibatzea.
- Proiektu estrategikoak: Euskadi Klima Egokitzeko EBko Misiona.

Hiri Jasangarriak:

- CISO30 estrategia bultzatzea.
- Proiektu estrategikoak: CI+IRU, Hiria Berroneratzeko Ikerketa eta Berrikuntza Zentroa eta Zero Plus (ALOKABIZI) bultzatzea alokairu sozialeko etxebizitza publikoen eredu berri baterako.

Euskadi Sortzailea:

- KSI Berritzaile+ eta Kultur Azeleragailuak programak sendotzea.
- Proiektu estrategikoak: BDCC sendotzea, euskal partaidetza EITren Kultura eta Sormenaren KICean, Creativity World Forumaren prestaketa 2024an, Basque Country.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

ZTBPrek aurrerapenak beste arlo batzuetan

Zientzia- eta unibertsitate-ikerketak. Euskal Sistema Zientifikoaren aurrerapenak:

- KSIgune unibertsitate-klusterrak sendotzea (kultura eta sormena).
- Ikerbasque Zientziarako Euskal Fundazioaren 2022ko Zientziaren Txostena.
- Talentua: aurrerapenak STEAM estrategian eta predoc eta postdoc prestakuntza-programetan.
- Neurobiozientzietan, Quantum Technologies-en, NeutriOnica-n, Superkonputazioan eta Adimen Artifizialean bikaintasun zientifikoa bultzatzeko IKUR Estrategia garatzea.
- Inbertsio estrategikoak: Basque nano Neuro Network eta QE Basque Quantum Ecosystem.
- Euskal Unibertsitate Sistemaren 2023-2026 Plana eta EUSen 2030 Nazioartekotze Plana egitea.

Berrikuntza Publikoaren Plana. Aurrerapenak berrikuntza publikoan eta administrazio elektronikoan:

- ARDATZ 2030, Gobernantza, Berrikuntza Publiko eta Gobernu Digitalaren 2030erako Plan Estrategikoa.
- Ekimen estrategikoa: OGP Euskadiren herritarren partaidetzarako berrikuntzako iLab abian jartzea.

Nazioartekotzea

Amaitzeko, komisionatuak jakinarazi du 2022an hasi zirela sinatzen Horizonte Europaren lehen kontratuak, Europako Batzordearen ikerketa eta berrikuntzarako esparru-programa berria.

Urte horretan 333 proiektu europar berri onartu ziren, euskal partaidetza izan zutenak eta Euskadirentzat ia 230 milioi euroko itzulera suposatuko dutenak. Aurreko urtearekin alderatuta, 3 proiektuekin biderkatu da eta 4 finantzaketarekin.[^]

Nabarmentzekoa da EAEk programa berrian parte hartzen duten proposamenen arrakastahuneko handia, % 23,8koa, Europako batez bestekoa (% 16,64) edo Estatukoa (% 19,26) baino nabarmen handiagoa.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

333 proiektuetan EAEko 523 erakundek parte hartu zuten, gehienak ikerketa-erakundeak (% 54), gero enpresak eta irabazi-asmoa duten bestelako erakundeak (% 29) eta goi-mailako irakaskuntzako erakundeak (% 11).

Batzordearen Ekarpenak:

Arantxa Tapia sailburuak, Cristina Uriarteren aurkezpena amaitu ondoren, parte hartu du, 2030erako ZTBPrek hedapen honetan garrantzi handikotzat jotzen dituen bi elementu emateko. Lehenik eta behin, Europa Itun Berdearen Industria Planaren bidez industria jasangarriaren garapena irmo bultzatzen ari dela nabarmendu du, edo, bestela esanda, iraunkortasunak ez dezala industria Europatik desagerarazi. Eta, bigarrenik, arlo publikotik zein pilotaje-taldeetatik ateratzen diren ekimen eta proiektu guztietan gertatzen ari den lerrokatze handia eta lankidetzaren publiko-privatuaren maila handia nabarmentzen dira.

Jokin Bildarratz sailburuak, Quantum ekosistema sustatzeari buruz hitz egin du, Cristina Uriartek deskribatu duen IKUR estrategiaren esparruan, eta konputazio kuantikoa bultzatzeko IBMrekin sinatu berri den akordioa aipatu du. Horri dagokionez, eskerrak eman nahi dizkie lehendakariari, Eusko Jaurlaritzako sailei eta hiru aldundiei, bai eta Ikerbasqueri ere, Euskadirentzat mugargi garrantzitsu hori lortzen lagundu duen baterako lan bikainagatik.

4. Next Generation funts europarren egoera-MRR-.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburuak Next Generation – MRR funts europarren egoera aurkeztu du. Eusko Jaurlaritzak funts horien eginkizun estrategikoa hobetu nahi du. Pedro Azpiazuren ustez, 2023. urtea une erabakigarria da Eusko Jaurlaritzarentzat, baina baita euskal erakunde eta eragile enpresarial, zientifiko-teknologiko eta sozialentzat ere.

Jarraian azaldu du, orain arte, Next Generation – MRR funtsen zati txiki bat baino ez dela banatu, eta, beraz, 2023 urte estrategikoa dela funts horiek ekoizpen-sarean hedatzeko. Euskadik 1.568 milioi euro bildu ditu, hau da, banatutako funts guztien % 5,2.

Funts horietatik, 309 milioi I+G+b sustatzeko dira. Horietatik ia 36 milioi Eusko Jaurlaritzak kudeatzen ditu, ikertzaileak eta Zientzia eta Teknologiako bost plan osagarri (energia eta hidrogeno berdea, osasunari aplikatutako bioteknologia, materialak, biodibertsitatea eta komunikazio kuantikoa) sartzeko programa bati esleituta. Gainerakoa, 274 milioi euro inguru, enpresa eta eragile zientifiko eta teknologiko publiko eta pribatuek erakarri dute, hau da, Estatu osoan I+G+Bri esleitutako MRR funts guztien % 8,2.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

5. I+G+b-ko enpresa-proiektuak eta -ekimenak

DANOBATGroup: I+Gtik merkatura iritsi arte.

Pello Rodriguez, Danobatgroupeko zuzendari nagusia, makina-erremintan eta fabrikazio aurreratuan espezializatutako talde industrial gisa aurkezten da. Danobat (Overbeck eta Hembrug), Soraluze eta Goimek bezalako enpresa eta marka liderrak biltzen ditu. Gaur egun, taldeak 276 milioi fakturatzen ditu urtean, % 90 esportaziorako, eta 1.400 pertsona enplegatzen ditu mundu osoan banatutako 15 produkzio-plantatan. Balio erantsi handiko osagaiak fabrikatzeko irtenbideak eskaintzen dituzte industria-sektore zorrotzenentzat: energia berdea, trenbidea, ekipo-ondasunak, aeroespaziala, automozioa, petrolio eta gasa. Gainera, negozio berriak sustatzen dituzte etorkizuneko beharrei aurrea hartzeko, eta SAVVY (digitalizazioa), Endity (saiakuntza ez-suntsitzaileak) eta BCN3D (3D inprimaketa) bezalako enpresa berrietan parte hartzen dute.

Jarraian, azken urteetan merkaturatutako I+Gko garapen nagusiak aurkezten ditu, bi ildotan oinarrituta: Bibrazioak moteltzeko teknologien garapena eta Prozesuen hobekuntza monitorizazioaren bidez. Bibrazioa moteltzea produktibitate handiagoarekin lotzen da, eta, ildo horretan, Taldeak, Ideko zentro teknologikoarekin lankidetzan, DAS, DWS eta VSET soluzioak garatu ditu, mekanizazio-zentroetako bibrazioak moteltzen eta egonkortzen laguntzeko, eta 3D ikusmenaren bidez neurketak egiten laguntzeko, piezen ahokadura eta lerrokadura hobetzeko. Monitorizazioa prozesuen eta kalitatearen aseguramenduaren parte da, eta, ildo horretan, hainbat aplikazio-sistema garatu dira bezeroaren etxean, prozesuak, makinak eta produkzio-aretoak monitorizatzeko. Garatu dituzten soluzio asko patentatu dituzte, eta, horrela, gero, beren produktuetan erabiltzeaz gain, beste enpresa batzuei ere transferi diezazkiekete.

Amaitzeko, Pello Rodriguezek gaur egun Danobatgroupen garatze- eta merkaturatze-fasean dauden I+G proiektu nagusiak deskribatu ditu. Proiektu horiek hiru lan-ildo dituzte: 1) Zehaztasuna hobetzea; 2) Doitasun-robotika CNCrekin; eta 3) Adimen artifiziala fabrikazioan. Lehenengoan, prozesuak eta makinak kontrolatzeko eta hobetzeko teknologia berriak garatzen ari dira, baita neurketa-sistema propioak garatzen ere. Bigarreanean, merkaturatzen daudenak baino doitasun handiagoko eta gama maila handiagoko robotak garatzen ari dira. Nitxo-aplikazio bat da, balio erantsi handikoa, eta bezero handien merkaturatzea zabaltzen die, Airbusena, esaterako. Fabrikazioan IA aplikatzeko azken lerroan simulazioen prestakuntza eta mundu errealerara transferitzea lantzen ari dira, simulazio-algoritmo berriak garatzen eta entrenatzen konplexutasun handiagoarekin, baita saiakuntza-bankuak martxan jartzen ere osagai kritikoan narriadura-prozesua monitorizatzeko eta modelizatzeko, ingurunea hornitzen duten ETEekin batera.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

ARTECHE TALDEA: Berrikuntza gure DNA-N.

Alexander Artetxe, Artecheko Taldeko presidente eta zuzendari delegatua, bere enpresa familiarraren egungo dimentsioa eta nazioarteko presentzia aurkezten hasi da. 2021ean 282 milioi euroko fakturazioarekin, presentzia komertziala du 175 herrialdetan, 13 instalazio produktiboz eta I+Gko 6 zentroz gain mundu osoan. Sektore elektrikoaren balio-kate osoan daude, eta arreta berezia jartzen dute Berriztagarrien Integrazioan eta Smart Grids-en. Energia azken erabiltzailearengana kalitate-, eraginkortasun- eta fidagarritasun-baldintzetan iristen dela ziurtatzea da haren xedea.

Berrikuntza konstante bat izan da Artetxen, enpresaren 75 urteko historian, non etorkizun jasangarriago, internazional eta berritzaileago baten alde eta erronka energetikoei erantzuteko lan egin duen. Gaur egun, enpresak bere negozio-bolumenaren % 3,2 I+G+b-ko jardueretan inbertitzen du, 198.000 ordu eskainita eta 23 patente martxan dituela. Kontratazioaren % 80ren jatorria azken hiru urteetan eguneratu diren produktuak dira. I+G-ko 6 zentroetan 185 pertsonak egiten dute lan, eta horietatik % 53k Euskadin egiten dute lan.

Ondoren, Artecheko presidentek enpresaren I+G eta berrikuntza teknologikoko ildo nagusiak deskribatzen ditu, sei ardatzen inguruan multzokatuta: 1) Iraunkortasuna; 2) Aktiboen kudeaketa; 3) Zibersegurtasuna; 4) Biki digitala; 5) Harmonikoen neurketa eta 6) Azpiestazioak babesteko eta kontrolatzeko birtualizazioa. Ardatz horietan garatzen dituzte beren proiektuak, finantzaketa publiko/pribatuko eredu desberdinen arabera, eta 2022an lortu dituzte emaitza nagusi gisa: I+G-ko 12 proiektu kofinantzatu (+%14 2021arekiko), finantzatutako 3 proiektu 64 bis, lehen Tax Lease proiektu bat eta aurkeztutako Europako proiektu bat.

I+G+b arloan, Artechek lankidetzak-hitzarmen global bat du sinatuta Tecnaliarekin, eta, horrez gain, lankidetzan dihardu hainbat zentro teknologikorekin, unibertsitaterekin eta berrikuntza sustatzen duten beste erakunde batzuekin. Duela gutxi bulego berri bat ireki dute BAT ekintzailatza eta berrikuntza zentroan, Eusko Jaurlaritzaren Bind 4.0 programan eta Iberdrolaren Global Smart Grids Innovation Hub-en bi proiektu garatzeaz gain.

Amaitzeko, Alexander Artechek I+G+b arloko Taldearen etorkizuneko plana deskribatu du. Plan horretan teknologia berriak txertatu behar direla dio Smart Grids, Big Data, Digitalizazioa, Iraunkortasuna eta Industria 5.0 arloetan. Hori guztia produktuei lotutako zerbitzuen bidezko negozio berriak sortzera eta enpresaren portfolioan sar daitezkeen balio erantsi handiko konponbideak eskaintzera bideratuta dago.

GLOBAL DOMINION: ADI “datuen portua” eraldaketa digitala bultzatzeko.

Mikel Barandiaranek, Global Dominioneko kontseilari delegatua, zerbitzu eta proiektu multiteknologikoen konpainia global gisa aurkezten du bere burua, 12.000 langile eta 1.000 bezero baino gehiagorekin 35 herrialdetan banatuta, 1.200 milioi eurotik gorako fakturazioarekin.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

Bere helburua bezeroen negozio-prozesuen eraginkortasuna eta iraunkortasuna maximizatzea da, zerbitzuen eta proiektuen soluzio integralen bidez, berrikuntza eta teknologia aplikatuz.

Dominion eraldaketa digitalean murgildutako enpresa da, norberarena eta, bereziki, bezeroena. Euskadiko Eraldaketa Digitalerako Estrategiarekin (ETDE 2025) bat datorren estrategia, Eusko Jaurlaritzak bultzatua, batez ere bere 6 palanka teknologikoekin eta bere bektore eta aplikazio-lerro batzuekin. Bertan, Data Centers – en sorrerarako laguntza esplizituki agertzen da. Gaur egun geroz eta jende eta enpresa gehiagok igotzen du informazioa hodeietara eta tsunami bat sortzen du. Baina hodei guztien atzean datu-zentro bat dago, eta segurtasun-arrazoiengatik eta arrazoi geoestrategikoengatik jakin beharko genuke datu-zentro horiek non dauden

Mikel Barandiaranek azaldu duenez, datu-zentro bat azpiegitura bat da, nolabait ohiko portu baten antzekoa izan daitekeena, zerbitzu nagusi batzuekin eta jarduera osagarriekin, eta tokiko eta eskualdeko ekonomietan trakzio-eragin handia izateko gai dena.

Jarraian, ADI proiektua aurkeztuko du, Dominionen strategiaren esparruan, Euskadin eraldaketa digitala bultzatzeko datu-portu 'irekia' sortu nahi duen proiektu eragile gisa eratzen dena. Besteak beste, euskal ekosistemarekiko hurbiltasuna, munduarekiko lotura, neutraltasuna, aldakortasuna eta lehiakortasuna bilduko dituen portua. Datuen biltegitratze, banaketa eta segurtasun behar berriei erantzuten dien proiektua da, gaur egun pertsonentzat, enpresentzat eta erakundeentzat merkantzia baliotsuena baitira.

Amaitzeko, Mikel Barandiaranek honela definitu du ADI: herrialde-proiektu bat, lehen mailako datu-zentroen sare bat, ekimen publiko-pribatuaren emaitza dena, tresna neutral eta diferentzial bat izatea helburu duena, Euskadiko sektore publikoaren eta pribatuaren trantsizio digitaleko strategiak babesteko eta datua alderdi kritikoa duten enpresen ekosistema berri bat erakartzen laguntzeko. Azken finean, azken belaunaldiko datu-portu fidagarria, iraunkorra, hurbila eta konektatua, neutroa eta moldakorra, lehiakorra eta, funtsezkoa dena, proiektu hau bultzatzeko interesa duten bazkide berriei irekia.

ADI proiektua 2022tik dago martxan, eta laster hasiko da lehenengo datu-zentroa eraikitzen; 2024an eta 2025ean jarraituko du, bigarrenarekin.

FAES FARMA: BioSilver proiektua.

Francisco Quintanilla Guerrak, Faes Farmako zuzendari nagusiak, I+G+b-ko proiektu estrategiko berri bat aurkeztu du, BioSilver izenekoa. Proiektu horretan bere enpresa elkarlanean ari da eta bizitza osasuntsua lortu nahi du. Faes Farma nazioartean ibilbide luzea duen enpresa farmazeutikoa da, eta produktu farmazeutikoak eta lehengaiak ikertu, ekoitzi eta merkaturatzen ditu, herrialde askotara esportatuz. Enpresak 1.680 langile baino gehiago ditu, eta Leioan (Bizkaia) ditu egoitza, fabrikazioa eta I+G zentroa. Gainera, animalien nutrizioa eta osasuneko enpresak ere baditu (FARM FAES), hala nola Ingaso Farm eta Tecnovit.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

Jaiotzako bizi-itxaropena 50-70 urtekoa zen garaian diseinatu ziren osasun-sistemak. Euskadin, Eustaten arabera, 65 urtetik gorako pertsonak biztanleriaren % 23 izan ziren 2021ean, eta 2050ean biztanleria osoaren % 38.8 izango direla kalkulatzen da. OMEren arabera, 60 urterekin bizi-itxaropenak 2.7 urte egin zuen gora 2000 eta 2019 artean (22.7 urtetik 25.4 urtera), eta bizi-itxaropen osasungarriak, berriz, 1.9 urte egin zuen gora aldi horretan bertan (17.3 urtetik 19.2 urtera). Gaur egun, osasun oneko urteak bizi-itxaropen biologikora hurbiltzeko neurriak hartu behar dira.

BioSilverren helburua da Euskadin bizi-itxaropenaren eta bititza osasuntsuaren arteko aldea murrizten laguntzea. Horretarako, hauskortasun-arriskuari buruzko azterlan epidemiologiko bat garatzea planteatzen du, haren faktore nagusiak identifikatzen lagunduko duena, eta Euskal Autonomia Erkidegoko 65 urtetik gorako biztanleen metabolomikari eta D bitaminaren urritasunari buruzko azterlan bat barne hartuko duena. Horretarako, 65 urtetik gorako 600 pazienteko kohorte bat landuko da, Osakidetza ospitaleekin (Santa Marina eta Gurutzeta) eta IMQ Igurco zerbitzu soziosanitarioetako zentroarekin lankidetzan. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko hainbat ikerketa-zentroren (CIC bioGUNE, Biocruces Bizkaia eta Bioef) eta ESAME Biomedical enpresaren laguntza ere izango du proiektuak. Aurreikuspenen arabera, proiektuko jarduerak 2023ko ekainean hasiko dira garatzen, partzuergoan parte hartzen duten erakundeek protokoloa eta lankidetzarako esparru-akordioa sinatu ondoren.

6. 2030 ZTBPren aurreikuspenak.

Komisionatuak azaldu duenez, Eusko Jaurlaritzaren funts publikoek trakzio-izaera dute, inbertsio pribatuaren palanka gisa jardutea bilatzen duena, I+Gko inbertsioen arloan Europako mailetara iristeko. Printzipio horren arabera, Eusko Jaurlaritzaren I+G+b-ri laguntzeko aurrekontuak % 10 inguru hazi dira 2021 eta 2022ko ekitaldietan, 2030eko ZTBPren hitzartutako % 6tik gora.

Eusko Jaurlaritza inbertsio-ahalegin horri jarraipena emateko lanean ari da, Euskadirentzat etorkizuneko apustu estrategikoa dela uste baitu. Ildo horretan, 2023an % 12 handitu ditu I+G+b sustatzeko partidak.

Une honetan, sail arduradunekin adosten ari dira 2023an Lehendakariak Berrikuntza Funtsaren bidez finantzatuko dituen ekimen estrategikoak, nazioartekotze-ekintzak eta azpiegitura zientifiko-teknologikoak. Guztira, 5,85 milioi euro bideratuko dira ekimen horietara.

Batzorde Zientifiko Aholkularia.

Cristina Uriarte komisionatuak Batzorde Zientifiko Aholkularia berri berri dela jakinarazi du, Lehendakariaren urtarilaren 24ko 2/2023 Dekretuaren bidez. Batzorde hori Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren barruan eratzen da, Zientzia, Teknologia, Ikerketa eta Berrikuntzarako Euskal Sistemari buruzko aholkularitza eta proposamenak egiteko organo aholku-emaile gisa.

Batzorde Zientifikoaren osaera berri ondoren, honako hauek osatzen dute Batzorde Zientifiko Aholkularia:

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

- Francisco Javier Aizpurua Iriazbal jaunak.
- Ana Aranzabe Garcia andreak.
- Miren Nekane Balluerla Lasa andreak.
- Nuria Gisbert Trejo andreak.
- Juan José Gómez Cadenas jaunak.
- Iñigo Martínez de Marañón Ibabe jaunak.
- Maria del Mar Mendive Bilbao andreak.
- Oihana Otaegui Madurga andreak.
- Maria José Sanz Sánchez andreak.
- Maria del Dulce Nombre Vallet Regi andreak.

ZTBPN Euskadi berrikuntzan aurreratuen dauden Europako eskualdeen artean kokatzeko ezarritako ikuspegi laguntzeko, Batzorde Zientifiko Aholkulariari gogoeta- eta gomendio-txosten bat egiteko enkargua ematea erabaki da. Txostenak Euskadik berrikuntzan izan duen bilakaerari buruz hitz egingo du, Regional Innovation Scoreboard (RIS) programaren bidez. Hurrengo edizioa 2023ko ekainean argitaratuko da.

RISak Europako eskualdeetako berrikuntza-sistemen jarduna neurtzen du, herrialdeen errendimendua neurtzen duen EISen antzera. Bi sistema horiek, Europako Batzordeak prestatuak, nazioarteko erreferentzia nagusizat hartzen dira arlo horretan, eta Euskadik berrikuntzan liderrak diren eskualdeen artean kokatzeko duen ambizioa neurtzeko balio dute.

7. Galde-eskeak.

Galde-eskeetarako tarte ireki aurretik, Cristina Uriartek jakinarazi du Kontseiluaren hurrengo bilera azaroaren 7an izango dela, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Astearen inaugurazioarekin batera.

Lehendakariak eskerrik beroenak eman dizkie gaur I+G+b arloan estrategia eta proiektu garrantzitsuenak aurkeztu dituzten lau enpresei, Euskadin lankidetzara publiko-pribatua bultzatzeko maximo hori egia bihurtzen baitute. Era berean, etorkizunean unibertsitateak Kontseiluan protagonista izan daitezen nahi du, 2030erako ZTBPNri egiten dioten ekarpena aurkezteko.

Unai Rementeria eta Markel Olano Bizkaiko eta Gipuzkoako Diputatu eta Ahalduen Nagusiek agur esan diote Kontseiluari, parte hartzeagatik eskerrak emanez eta egindako lanagatik pozik daudela adieraziz. Era berean, Deustuko Unibertsitateko errektore Jose M^a Gibertek agur esan du, Kontseiluaren barruko eta kanpoko erakundeen arteko elkarlanagatik eskerrak emanez.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta


8. Akordioak.

Cristina Uriarte komisionatuak honako ondorio hauek aurkeztu dizkio Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluari, bileraren nondik norakoak laburbiltzeko:

- Lehenengoa: 2030erako ZTBPren 1. jarraipen-txostenean jasotako aurrerapenak positiboki baloratzea eta identifikatutako hobekuntza-arloetan lan egitea, berrikuntzan liderrak diren Europako eskualdeen artean kokatzeko helburuaren ildotik.
- Bigarrena: I+Gko enpresa-inbertsioen garrantzia eta enpresek zientziari, teknologiari eta berrikuntzari egiten dioten ekarpena nabarmentzea, ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-iraunkortasunerantz gero eta norabide handiagoa hartuz.
- Hirugarrena: Euskadik Horizonte Europaren lehen urtean izan dituen emaitza onak ospatzea, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistema osatzen duten erakunde guztien ahaleginaren eta lan onaren ondorioz.
- Laugarrena: I+G+b-ko proiektu estrategiko handiak bultzatzen jarraitzea, lankidetzak publiko-pribatuko eredu baten pean garatutako eta ezagutza- eta balio-kate globaletan kokatzen laguntzen diguten herrialde-proiektuak.
- Bosgarrena: Aholku Batzorde Zientifikoari eskatzea Euskadik berrikuntzan izan duen bilakaera aztertzeko txosten bat egin dezala Europako Regional Innovation Scoreboard (RIS) delakoaren bidez, orientazio gisa eta hobetzeko tresna gisa balio dezan.

9. Bileraren itxiera

Gai-zerrendako puntu guztiak ikusi ondoren, eta beste aztergairik ez dagoenez, bilera amaitutzat ematen da.



Cristina Uriarte Toledo

ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZARAKO KOMISIONATUA